

KAUSALAK – ARIKETA

Bihurtu ondorengo esaldiak perpausa kausaletan, -(e)lako menderagailua erabiliz.

1. Gose naiz eta ogitartekoa erosi dut.
-
2. Egarri da eta ura edango du.
-
3. Txiste ona kontatu dute eta algara handia egin du.
-
4. Amonak ez du ikusten eta eskaileretan erori da.
-
5. Iratzargailuak ez du jo eta berandu jaiki naiz
-
6. Vans zapatilak modan daude eta guztiek erosi dituzte.
-
7. Argia kendu dute eta kandela piztu dugu.
-
8. Aitona hotz da eta berogailua piztu du.
-
9. Beldurtia naiz eta ez naiz gauez irteten.
-
10. Zapatak hondatu zaizkit eta berriak erosi behar ditut.
-
11. Txiklea jaten dute eta hortzak ustelduko zaizkie.
-
12. Autobusa erre dute eta oinez joan behar dugu.
-

KAUSALAK – Erantzunak

- 1. Gose naiz eta ogitartekoa erosi dut.**
Ogitartekoa erosi dut gose naizelako.
- 2. Egarri da eta ura edango du.**
Ura edango du egarri delako.
- 3. Txiste ona kontatu dute eta algara handia egin du.**
Algara handia egin du txiste ona kontatu dutelako.
- 4. Amonak ez du ikusten eta eskaileretan erori da.**
Amona eskaileretan erori da ikusten ez duelako.
- 5. Iratzargailuak ez du jo eta berandu jaiki naiz**
Berandu jaiki naiz iratzargailuak jo ez duelako.
- 6. Vans zapatilak modan daude eta guztiek erosi dituzte.**
Guztiek erosi dituzte Vans zapatilak modan daudelako.
- 7. Argia kendu dute eta kandela piztu dugu.**
Kandela piztu dugu argia kendu dutelako.
- 8. Aitona hotz da eta berogailua piztu du.**
Aitonak berogailua piztu du hotz delako
Berogailua piztu du aitona hotz delako
- 9. Beldurtia naiz eta ez naiz gauez irteten.**
Ez naiz gauez irteten beldurtia naizelako.
- 10. Zapatak hondatu zaizkit eta berriak erosi behar ditut.**
Zapata berriak erosi behar ditut hondatu zaizkidalako.
Berriak erosi behar ditut zapatak hondatu zaizkidalako.
- 11. Txiklea jaten dute eta hortzak ustelduko zaizkie.**
Hortzak ustelduko zaizkie txiklea jaten dutelako
- 12. Autobusa erre dute eta oinez joan behar dugu.**
Oinez joan behar dugu autobusa erre dutelako.